

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2008ko AZAROA

Euskal AEko industri jarduera %10 jaitsi zen 2008ko azaroan

2008ko lehenengo hamaika hilabeteetako bilakaerak % 1,8ko jaitsiera izan zuen.


Eustatek landutako datuen arabera, lan-egutegiko baldintza homogeneousan, Euskal AEko industri produkzioak % 10 egin zuen behera 2008ko azaroan, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, Euskal AEko industri produkzioa % 2,8 jaitsi zen, 2008ko urriarekin alderatuta.

2008ko lehenbiziko hamaika hiletako balantzea Industri Produkzio Indizearen % 1,8 murrizketarekin itxi zen, aurreko urteko aurreneko hamaika hilabeteen aldean.

1. grafikoa: Euskal AEko Industri Produkzio Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundea



(*) 2008ko urria-azaroko urte arteko hazkundea, zuzenduta

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industriako sektore nagusien sailkapenari jarraiki, 2008ko indizearen bilakaerak ondoko aldakuntzak izan zituen, 2007ko azaroaren aldean: sektore guztiek jaitsiera jasan zuten, Energia sektorea izan ezik, % 2,1 hazi baitzen. Bitarteko ondasunek % 16,1 egin zuten behera, ekipamendukoak % 7,1; kontsumo-ondasunek ere % 5,1eko murrizketa izan zuten, izan ere, bai Kontsumo-ondasun iraunkorrak (-% 16,6), bai kontsumo-ondasun ez iraunkorrak (-% 0,2) jaitsi egin ziren.

Horrez gain, 2008ko azaroko hil arteko aldakuntzak, 2008ko urriaren aldean, negatiboak izan dira ere bai, Energiaren kasuan izan ezik, aldaketarik ez baitu jasan (% 0,0). Ekipamenduko ondasunek % 4,3 egin zuten behera, bitartekoek % 3,1; kontsumo-ondasunek ere % 1,4ko murrizketa izan zuten, izan ere, bai Kontsumo-ondasun iraunkorrak (-% 1,3), bai kontsumo-ondasun ez iraunkorrak (-% 1,4) jaitsi egin ziren.

Lurralde historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoei dagokienez, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak negatiboak izan dira hiru lurralde historikoetan: % 7,2 jaitsi zen Araban, % 8,9 Bizkaian eta % 12,7 Gipuzkoan.

Hil arteko bilakaerak, 2008ko azaroa 2008ko urriaren aldean, negatiboak izan dira ere bai: % 5,3 jaitsi zen Araban, % 1,8 Bizkaian eta % 2,5 Gipuzkoan.

Taula: 2008ko URRIA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzio Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	08Aza/07Aza	At/At-1 (1)	08Aza/08Urr	08Urr/08Ira
Indize orokorra: Euskal AE	-10,0	-1,8	-2,8	-1,1
Araba	-7,2	-2,3	-5,3	2,8
Bizkaia	-8,9	-0,6	-1,8	-1,6
Gipuzkoa	-12,7	-2,8	-2,5	-2,6
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-5,1	-6,0	-1,4	2,0
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-16,6	-14,8	-1,3	-1,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-0,2	-2,3	-1,4	3,1
Ekipo-ondasunak	-7,1	-0,5	-4,3	1,9
Bitarteko ondasunak	-16,1	-2,8	-3,1	-3,3
Energia	2,1	4,9	0,0	-4,2

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko aldakuntza-tasa, t-1 urteko aldi beraren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp